



Arartekoaren 2019R-381-19 Ebazpena, 2019ko uztailaren 22koa. Horren bidez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio, diru-sarrerak bermatzeko errenta ukatzeko erabakia berrikus dezala, kexagileak premia-egoera larriagatik harreran hartzeko betekizuna betetzen duela uste baitu.

Aurrekariak

1.- Herritar batek kexa aurkeztu zuen Arartekoan Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errenta aitortzeko eskaera ukatu ziola eta.

2019ko urtarrilaren 23an emandako ebazpen horretatik ondoriozta daiteke, laburbilduz, Lanbidek prestazio hori ukatzea erabaki zuela arrazoi honetan oinarrituz:

*“No conformar UC. Según el informe de los servicios sociales aportado, **la unidad acogedora son sus padres de acogida con quienes ha vivido desde los 3 años** (padrón desde el 04/11/1998 al 18/10/2013); desde el 31/08/2017 al 09/07/2018 y desde 03/10/2018). El artículo 5.3 del Decreto de la Renta de Garantía de Ingresos equipara la relación de acogimiento familiar o tutela y la familiar, por lo que no cabe reconocer la renta de garantía de ingresos por acogimiento de extrema necesidad solicitada.”*

Ebazpen horrekin ados ez zegoela-eta, kexagileak berraztertze errekurtsoa aurkeztu zuen 2019ko otsailaren 21ean.

Interesdunak argudiatu zuen 6 urte igaro direla (zehazki 2013ko apirilaren 14an adinez nagusi bihurtu zenetik) harreran zuten pertsonen babes emateari utzi ziotenetik eta, hortaz, gaur egun haiekin afektiboa baino beste harremanik ez duela.

Illo horretan, Lanbideri eman zion Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailaren maiatzaren 20ko 29008/2013 Foru Aginduaren kopia bat; horren bidez, tutoretza horren amaiera erabaki zen adinez nagusia zelako jadanik.

Gainera, kexagileak jakinarazi zuen harreran hartzeko aukera amaitu zitzaionetik bizilekua aldatu egin zuela: hasieran, Barakaldora joan zen, gero Bartzelonara eta





azkenik, Gasteizera. Lau urte geroago, 2017ko abuztuan, etxebizitza aldatu zuen eta familia horrek berriro harreran hartu zuen.

Azkenik, aipagarria da 2019ko otsailaren 12an bere semea jaio zela eta, beraz, gaur egun bizikidetzaren unitatea kexagileak eta adingabeak osatzen dutela. Semea jaio ondoren, kexagileak diru-sarrerak bermatzeko errenta eskatu du berriz bizikidetzaren unitate independente moduan maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren, Diru-Sarrerak Bermatzeko Errentari buruzkoaren, 9.1.a) artikuluan ezarritakoa betez.

2.- Kexa behar bezala izapidetzeko, Arartekoak informazio-eskaera bidali zion Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari. Gainera, ezer erabaki aurretik, gogoeta batzuk azaldu zituen prestazioak itzultzeko beharraren arrazoiari dagokionez. Ondoren adieraziko dira errepikakorrek ez izateko.

Hain zuzen, honako kontu hauei buruzko azalpenak eskatu zitzaizkion Lanbideri:

- a) Kexagileari diru-sarrerak bermatzeko errenta ukatzeko arrazoiak direla-eta Lanbidek egindako interpretazioaren azalpen zabalagoa.*
- b) Noiz ebartziko den berraztertze errekurtsoa, Lanbideren aurreikuspenen arabera. Halaber, ebazpenik eman bada, helaraziezaguz horren kopia.*
- c) Zer izapidetze-egoeratan dagoen diru-sarrerak bermatzeko errenta aitortzeko azken eskaera, kexagilearen semea jaio eta gero egin zena.*
- d) Zer iritzi duzun helarazitako alde aurretiko gogoeten inguruan.*
- e) Aurreko gertaerekin zerikusia duen edozein informazio interesgarri.*

3.- Lankidetzaren eskaerari erantzute aldera, honako hau adierazi zuen Lanbideko zuzendari nagusiak:

“Aipatu duzun kasua 2018/RGI/015833 ukatze-ebazpenari aurkeztutako berraztertze errekurtsoari buruzkoa da. 2019ko martxoaren 25ean erantzun zitzaion, eta urte bereko apirilaren 4an jakinarazi zen.

E.A.T. andreak 2018ko urrian DSBE emateko eskatu zuela, eta Lanbideko bulegoak ukatu egin zuela. Ondoren, berraztertze errekurtso bat aurkeztu zuen, eta erantzun bera eman zitzaion. Izan ere, maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 5.3. artikulua oinarri hartuta, hartutako pertsonak ez dute loturarik izan behar bizikidetzaren unitateko kide bakar batekin ere.





Are gehiago, Dekretu beraren 5.1.b. artikuluko egoera oinarri hartuta kalifikatu beharko litzateke kasu hori. Izan ere, Dekretuaren ondoretarako, ez du bereizten bizikidetza-unitate berean sartzen diren hauek: elkarren artean edozein harreman motak lotzen dituen kideak eta abegi-kideak. Horrenbestez, Lanbidek agindu hori sistematikoki interpretatu zuen.”

Horrenbestez, beharrezkoak diren egitate eta zuzenbide elementuak ditugula uste dugunez, honako gogoeta hauek egin nahi ditugu:

Gogoetak

1.- Lanbidek kexagilearen diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskaera ukatu zuen, arrazoi hau dela eta: eskatzailea ez dagoela premia larriagatik harreran hartzeko egoeran, maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 5.3 artikuluan ezartzen den egoera; izan ere, orain harreran hartu duten pertsonak bere garaian harrera-familia izan ziren.

Maiatzaren 147/2010 Dekretuak (Diru-Sarrerak Bermatzeko Errentari buruzkoa) 9. artikuluan agintzen denez, diru-sarrerak bermatzeko errentaren titular izateko betekizun bat da urtebete gutxienez bizikidetza-unitate independentea osatzea.

Bizikidetza-unitatea 147/2010 Dekretuaren 5. artikuluan definitzen da, eta haren 3. apartatuan ezartzen da premia-egoera larriagatik harreran hartzeko aukera betekizun hori betetzeko bideetako bat dela.

Zehazki:

“3.– Era berean, bizikidetza-unitate bat eratuko dute, beren premia larria dela medio, halakotzat hartuz artikuluko honen 1. paragrafoko c) idatz-zatian adierazitakoa, artikuluko honen 1. paragrafoko a) eta b) idatz-zatietan aurreikusitako bizikidetza-unitateren batek hartu dituen pertsonak, betiere:

– Harrerako unitateak nahiko baliabideak baditu bere oinarritzko gastuei aurre egiteko; ondorio horietarako ezingo dute Diru-sarrerak bermatzeko errenta jaso;

– Hartutako pertsonak harrerako unitateko pertsonekin ez badute 1. paragrafoko b) idatz-zatian bildutako loturaren bat: ezkontza edo ezkontzakoaren antzeko beste harreman iraunkorren bat, adopzioa, laugarren mailarainoko odol-ahaidetasuna edo bigarren mailarainoko ezkon-ahaidetasuna, familiako harrera iraunkorra edo adopzio aurrekoa edo tutoretzapekoa;





– *Unitate hartzailearen eta hartu dituzten pertsonen artean diru bidezko traturik ez dagoenean;*

– *Premia larriko egoera egiaztatzen duen erreferentziazko Oinarrizko Gizarte Zerbitzu baten txostena dagoenean.*

Kasu horietan, harrerako bizikidetzta-unitatetik bereizitako bizikidetzta-unitate izaerari gehienez ere hamabi hilabetez eutsi ahal izango zaio, eta ezohiko kasuetan beste hamabi hilabetez luzatu ahal izango da, harrera-egoera ahalbidetu zuten baldintzek jarraitzen badute, aldez aurretik Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek txostena egin ondoren.”

Bestalde, artikuluko beraren 7. apartatuak honako hau ezartzen du: *“Arau honen ondorioetarako, babeseko, zaintzako nahiz tutoretzako egoerak guraso eta seme-alaben arteko harremanen parekoak izango dira.”*

Lanbidek egindako interpretazioaren arabera, haurra babesteko neurri gisa etxe batean aurrez harreran hartutako pertsona batek ezin du inoiz diru-sarrerak bermatzeko errenta eskatu etxe horretan bizi den artean, harrera amaituta badago ere eta egiaztatu arren bete beharreko premia larriko egoera bat dagoela.

Aldiz, enplegu erakunde autonomoak ondorioztatu duenez, bizikidetzta-unitate hori dekretu beraren 5.1.b artikulua ikuspegitik baloratu behar zen, hau da, bizikidetzta-unitate bakar baten osaera aurreikusten duena bertako kideen artean familia harremanen bat, ezkontzako edo antzekoa dutenean.

Lanbidek egindako interpretazioarekin ez dator bat Arartekoa; izan ere, adierazitako egoerak ez du betetzen maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 5.3 artikuluan ezarritako familia-harreraren betekizuna, harrera hori aurrez amaitu baitzen.

Arartekoa interpretatu du harreran hartua izan den pertsonaren eta hartzailearen arteko harremanei dagokienez 5.3 artikuluan ezarritako mugak ezin direla kasu honetan aplikatu. Kontuan hartu behar da haien artean ez dagoela harremanik, **senideen artean elikagaiak emateko betebeharra ere** (Kode Zibilaren 142. artikuluan ezartzen da) ez da betetzen, eta horrek dakar, laburbilduz, pertsona batek irauteko beharrezkoak diren baliabide guztiak emateko betebeharra, hauei lotuta: elikadurari eta, oro har, bizitzaren alderdi guztiei, hezkuntza barne.

Horri dagokionez, gogora ekarri behar da, lege horren 143. artikuluan ezarritakoaren arabera, honako hauek elkarri elikagaiak ematera behartuta daudela: ezkontidea, aurreko eta ondorengo ahaideak eta, amaitzeko, anai-arrebak.





2-. Premia larriagatik ondoren familia berak harreran hartu izana, egoera hori arrazoizkoa da, era honetako harreretan ohikoena baita aurrez pertsona edo familia hartzailearen eta hartua izan denaren artean harremanen bat egon izana; ez da, baina, babes neurri baten ondoriozkoa.

Familia-harreraren figura hemen ezartzen da: urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoan, Adingabekoen Babes Juridikoari buruzkoan, Kode Zibila eta Prozedura Zibilari buruzko Legea zati batez aldarazi dituena; hain zuzen, *Familia-hartzaileen eskubide eta betebeharrei* buruzko 20 bis artikuluan aipatzen da, besteak beste, familia-hartzaileek betebeharrak izango dituztela:

“l) Los acogedores familiares tendrán las mismas obligaciones respecto del menor acogido que aquellos que la ley establece para los titulares de la patria potestad.”

Halaber, Kode Zibilaren 173. artikulua araberaren arabera, familia-harreraren bidez, adingabeak familiaren bizitzan parte hartzen du erabat, eta hartzaileari hartu den pertsona babesteko betebeharrak ezartzen dizkio, beraiekin egotekoa, elikatzekoa, heztekoa eta prestakuntza oso bat ematekoa ingurune afektibo batean.

Nolanahi ere, **betebehar horrek dirau, baldin eta adingabearen babes neurria eragin duen agindu edo epai judiziala indarrean badago**, hau da, adingabea babesgabetasun egoeran dagoenean eta familia-harreran datzan babes neurria indarrean dagoenean.

Hura eteten denean, egoera ez da, erakunde honen aburuz, Kode Zibilean ezarritako pertsonen dutenaren **antzekoa** (beren artean elikagaiak ematera behartzen die); hortaz, ez luke oztopo izan behar ere, azaldutakoaren antzeko kasuetan, aurrez harrera-guraso izan zirenekin berriz bizitzen jarri den pertsona bati diru-sarrerak bermatzeko errenta aitortu ahal izateko, **baldin eta prestazioa eskatzeko unean egiaztatzen badu harrera jadanik amaitu zela eta premia-egoera larriagatik harreran hartzeari lotutako 147/2010 Dekretuaren 5.3 artikulua gainerako eskakizunak betetzen dituela.**

3. Beraz, erakunde honen iritziz, diru-sarrerak bermatzeko errenta etetea adierazteko ebazpenaren arrazoiketak ez du behar bezalako babesik pertsonen ekonomia-inklusioko eta gizarteratzea xede dituzten prestazioak arautzeko legean.





Erakunde honen ustez, kexagileak egiaztatu du premia-egoera larriagatik harreran hartu duten pertsonekin harremanik ez duela eta, hortaz, pertsona horiek ez dutela ostatua eta laguntza ekonomikoa emateko betebeharririk.

Hori dela-eta, erakunde honen iritziz, Lanbideren jarduna berrikusi egin behar da eta onartu kexagileak adierazitako inguruabarrek maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuak (Diru-Sarrerak Bermatzeko Errentari buruzkoa) 5.3 artikuluan ezarritakoa betetzen dutela; izan ere, unitate hartzailearekin familia harremanik ez du, horrek oinarrizko gastuak ordaintzeko nahikoa baliabide du eta unitate hartzailearen nahiz hartutako pertsonaren artean ordain ekonomikorik ez dago.

Horregatik guztiagatik, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak —erakunde hau sortu eta arautzekoak— 11. b) artikuluan ezarritakoaren arabera, iradokizun hau egin nahi diogu sailari:

Gomendioa

Arartekoak honako hau gomendatzen du: berrikus dadila diru-sarrerak bermatzeko errenta ukatzeko ebazpena, azaldutako kasua premia larriko egoeragatik harreran subsumitu daitekeelako.

